



FORU ARAU PROIEKTUA, EKAINAREN 30EKO 19/1997 FORU ARAUA, ARABAKO TOKI ERAKUNDEAK FINANTZATZEKO FORU FUNTSA ARAUTZEN DUENA, ALDATZEKO ZIOEN AZALPENA

ZIOEN ADIERAZPENA

Ekainaren 30eko 19/1997 Foru Arauaren bidez, Arabako toki erakundeak finantzatzeko foru funtsari buruzko araudia onartu zen. Une hartan, toki finantziarioa Arabako Lurralde Historikoko baliabide erabilgarrien %53,70ean ezarri zen, funtsaren beraren (%50) eta Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren (%3,70) artean banatuta.

Geroago, 2008ko ekitaldiko aurrekontua gauzatzeko foru arauaren bidez onartu zen funtsari egozgarri ziren baliabide erabilgarrien ehunekoia igotzea %52,30era, eta horrek guztizkoa %56 izatea ekarri zuen.

2013ko ekitaldian onartu zen 21/2013 Foru Araua, auzo harremanak sustatzeko ekimenetarako eta obra txikiak eta auzolanak gauzatzeko laguntza programak arautzen dituena, eta Arabako Lurralde Historikoaren baliabideen %0,5eko hornidura minimoa ezarri zitzaien.

Une honetan, eta Euskadiko toki erakundeen legeak ezarritako toki eskumenen gaur egungo esparrua ikusita, komenigarritzat jo da funtsara bideratutako ehunekoia %0,5 gehitzea, %52,80ra arte. Beraz, toki finantziarioa, guztira, lurraldeko baliabide erabilgarrien %57 izango da.

Bestalde, 19/1997 Foru Arauan bertan jaso zen funtsaren barruan kuadriletarako ekarpen baldintzatuak ezartzeko aukera, beren lurraldeko toki erakundeei eskualderako zerbitzuak emategatik.

Hortaz, 1998. urteaz geroztik, ekarpen baldintzatuak eman dira zerbitzu hauetarako: gizarte eta kultura animazioko zerbitzuak, hirigintza diziplina eta ondare eraikia, eta ekonomia eta enplegu sustapena.

Udalerriek ontzat jo dituztenez zerbitzu horiek eta kuadrillek beren lurraldea antolatzeko ahalmena dutenez, komeni da zerbitzuen multzoa zabaltzea. Horregatik, toki erakundeei zerbitzu hauek finantzatzeko aukera handitu zaie: ingurumenaren alorreko aholkularitza teknikoa, berdintasunaren alorreko aholkularitza teknikoa, euskararen alorreko aholkularitza teknikoa eta herritarren partaidetzaren alorreko aholkularitza teknikoa.

Ekainaren 30eko 19/1997 Foru Arauak, Arabako toki erakundeak finantzatzeko foru funtsa arautzen duenak, jasotako hiru artikulua aldatzen ditu arauak.

Lehenengoa- Aldatu egiten da ekainaren 30eko 19/1997 Foru Arauaren, Arabako Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtsa arautzen duenaren, 5. artikulua. Hona hemen aurrerantzean izango duen testua:

5. artikulua.- Arabako toki erakundeek Lurraldearen baliabide erabilgarrietan duten partaidetza eta Finantzatzeko Funtsaren zuzkidura.

Arabako toki erakundeek Lurraldearen baliabide erabilgarrietan duten partaidetza eta Finantzatzeko Funtsaren zuzkidura.

1. Arabako toki erakundeek Lurraldearen baliabide erabilgarrietan duten partaidetza ehunekoia, martxoaren 23ko 2/2007 Legeak, baliabideen banaketarako eta foru aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuak finantzatzeko egin beharreko ekarpenak zehazteko 2007-2011 epealdian aplikatuko den metodologia onartzen duenak, bere 4. xedapen gehigarriko 2. idatz zatian xedatutakoaren arabera kalkulatu da, ondoren zehazten den moduan:

¹TEFFF %52,80, Obra eta Zerbitzuen Foru Plana %3,70 eta Obra Txikiak eta Auzolanak %0,5.

Partaidetza = (RDa - DFa) ren %¹57, modu honetara:

-RDa Lurralde Historikoaren baliabide erabilgarriak dira, honela definituta:

$$RDa = (Ra - Da - Pa - AGa - Ta \pm FGa)$$

- Ra Ekonomia Itunaren kudeaketak dakartzan sarrerak dira, banatu beharrekoak: zerga itunduen bilketa eta zerga itunduengatik sortutako interes likidoak.
- Da kupoaren metodologiatik datozen doikuntzak dira: Estatuari ordaindu beharreko kupo likidoa, kupoaren metodologiaren konpentsazioak, Ertzaintzaren handitzea eta Autonomia Erkidegoari eskumen berriak eskualdatzea.
- AGa erakunde erkideentzako ekarpen orokorra da.
- Pa kenkari bereziak dira.

Ta erakunde erkideetatik foru organoetara egiten diren eskualdaketa berrien balioespena da. Eskualdaketa horiek Eusko Legebiltzarraren martxoaren 23ko 2/2007 Legearen 10. artikuluan aipatutakoak dira. Baliabideen banaketarako eta foru aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuak finantzatzeko egin beharreko ekarpenak zehazteko 2007-2001 epealdian aplikatuko den metodologia onartzen du lege horrek.

- FGa Doikuntza Funts Orokor garbia da.
- DFa ondoko kenkari hauen batura da:
- Gizarte Segurantzako erakunde kudeatzaileei lotutako eskualdaketak finantzatzeko kenkaria, eskumen hori erabiltzea foru erakundeei dagokienean.
- 1997-2001 bosturtekoan foru organoari eskualdatutako eskumenak finantzatzeko kenkaria.
- BEZak ordezkatu dituen probintziako dirusarrerak konpentsatzeagatik egiten den kenkaria.

2007ko ekitaldirako kenkari hauen zenbateko osoa Herri Finantzen Euskal Kontseiluak finkatuko du eta ekitaldi bakoitzerako indize hau aplikatuz eguneratuko dira:

$$\text{Eguneratze indizea} = RD_a^t / RD_a^o$$

RD_a^t Lurraldeak t ekitaldian dituen baliabide erabilgarriak dira, eta RD_a^o 2007ko abiaburuko urtean dituenak, homogenotasunez.

g azpi-indizeak adierazten du kontzeptu bakoitzaren zenbatekoa Arabako Lurralde Historikoari benetan dagokiona izango dela.

2. Arabako Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtza Arabako Lurralde Historikoari dagozkion baliabide erabilgarrien ehuneko berrogeita hamabi eta hogeita hamar (% 52,80) gutxienez jotzen duen diru kopuru batez zuzkituko da aurrekontu ekitaldi bakoitzerako. Baliabide horiek, martxoaren 23ko 2/2007 Legearen 4. xedapen gehigarriko 2. idatz zatian xedatutakoaren arabera kalkulatu dira.

Bigarrena. Aldatu egiten da ekainaren 30eko 19/1997 Foru Arauaren, Arabako Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtza arautzen duenaren, 8.B. artikulua. Hona hemen aurrerantzean izango duen testua:

8. artikulua.- Partaidetzen sailkapena

(...)

B) Koadrila bakoitzari 67.613,86 euroko partaidetza finkoa emango zaio, bere Koadrilaren Batzarreko kideek eragindako administrazio eta funtzionamendu azpiegiturak izandako gastuak ordaintzeko.

Halaber, honako hauetarako hornidurak sartuko dira:

Ekonomia eta enplegu sustapena

Gizarte eta kultura arloko jarduerak

Hirigintzaren eta kultura ondare higiezinaren alorreko aholkularitza teknikoa

Ingurumenaren alorreko aholkularitza teknikoa

Berdintasunaren alorreko aholkularitza teknikoa.

Euskararen alorreko aholkularitza teknikoa

Herritarren partaidetzaren alorreko aholkularitza teknikoa

Azkenean kuadrillek ematen dituzten guztiak, oro har.

Kontzeptu horiek eragindako gastuen finantzaketari loturiko funtztat joko dira zenbateko horiek.

Ahalmena ematen zaio foru aldundiari aintzat hartu diren zerbitzuen finantzaketa baldintzak zehazteko.

Horretarako, kontuan izango dira, gutxienez, langileen kostua eta lekualdatze gastuak.

(....)

Hirugarrena. Aldatu egiten da ekainaren 30eko 19/1997 Foru Arauaren, Arabako Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtza arautzen duenaren, 11.a. artikulua. Hona hemen aurrerantzean izango duen testua:

11. artikulua.- Partaidetza osagarria

(...)

a)- Udal bakoitzari, 21.035,42 euroko esleipen finkoa emango zaio.

(....)